

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

[www.ehu.es/
azpidazki](http://www.ehu.es/azpidazki)



EHUREKA AHOLKUAK

18

ESTILOA (I)





SARRERA

Testuak zuzena izan behar du, jakina. Baina, horrez gain, egokia ere izan behar du. Bestela, ulergaitza izan daiteke.

Horregatik, gaztelaniazko estilo-eredua ez da beti egokia izaten eta ez daukagu beti zertan kopiatu.

Azken helburua da testua ahalik eta irakurgarrien egitea.





ZENBAIT AHOLKU

- # Aukeran, erabili **hitz laburrak eta ezagunak**
- # Egin **esaldi laburrak**
- # Erabili **hizkera konkretua**, abstraktuaren orde
- # Erabili esaldian informazioa aurreratzen duten egiturak
- # **Errepikapenak neurriz**, kohesioa indartzeko
- # Erabili **testu-antolatzaileak**
- # Jarri **aditza leku logikoan**
- # Erabili **tipografia aberatsa**: zenbakiak, letra lodia, etzana...





ZENBAIT AHOLKU

- ✚ Diseinatu idazkia era funtzional eta argian
- ✚ Egituratu lerroaldeak
- ✚ Eman adibideak, egoera ulergarriekin
- ✚ Erabili tipografia, zentzuz eta argi hierarkizatuta
- ✚ Egokitu hizkera maila hartzaileari eta gaiari



Kalitateak testuaren
zuzentasuna, jatortasuna eta
egokitasuna neurtzen ditu.

Kontuan hartu behar da zein den
gure helburua, hizketaldia egokia
izan den ala ez jakiteko.





LABUR-LABUR

Testua ulergarriago egiteko erabil daitezkeen zenbait lokailu:

Ondorioa adierazteko: *beraz, ondorioz*

Iritzia kontrajartzeko: *dena den, hala (eta guztiz) ere, baina, ordea, aldiz, berriz*

Zalantza/zalantza eza adierazteko: *esango nuke, ez nago ziur baina, agian, beharbada, argi dago*

Arrazoiak gehitzeko: *baita...ere, halaber, gainera, era berean, horrez gain*

Adibideak/zehaztasunak emateko: *hain zuzen ere, adibidez, esaterako, besteak beste, hala nola*

Ideiak birformulatzeko: *honekin zera esan nahi dut, hau da, alegia, bestela esanda*





LABUR-LABUR

Testua ulergarriago egiteko erabil daitezkeen zenbait lokailu:

Testua antolatzeko: *hasteko, alde batetik....; bestetik, bukatzeko, azkenik, bestalde, gainera, halaber*

Gaia zehaztekoak: *...dela eta, dagokionez*

Kausa adierazteko: *horregatik, hori dela eta*

Zergatikoak: *...-ren berri izan dezazun, jakinaren gainean egon zaitez*

Helburua: *honekin batera bidaltzen dizut, honen bidez/bitartez, jakinarazten/adierazten dizut*

